Bizi Berri III Plana

# Principales medidas en vigor en Euskadi frente a la COVID-19

## Euskadin indarrean dauden neurri nagusiak, COVID-19aren aurrean

**Mugikortasuna.** “Etxeratze agindua”, 22:00etatik 06:00etara. Euskadiren itxiera perimetrala. Udalaren itxiera perimetrala, 100.000 biztanleko 400etik gorako intzidentzia-tasa duten udalerrietan (*).

***Movilidad.*** *“Toque de queda”, de 22:00 a 06:00h. Cierre perimetral de Euskadi. Cierre perimetral municipal en localidades con incidencia superior a 400/100.000 habitantes (*).*

---

**Bilerak.** Gehienez 4 pertsona espazio pribatuetan. Aste Santuan, bizikidetza-unitate bakarra etxeetan.

***Reuniones.*** *Máximo de 4 personas en espacios privados. Durante Semana Santa, en domicilios una misma unidad convivencial.*

---

**Ordutegiak**. 21:00etan, establezimenduak ixtea eta jarduerak etetea.

***Horarios.*** *A las 21:00h., cierre de establecimientos y cese de actividades.*

---

**Merkataritzako edukierak.** 150 $m^2$ baino gehiagoko establezimenduetan, % 40; eta 150$m^2$ arte, % 60. Azoka txikietan, baimendutako postuen % 50.

***Aforos en comercio.*** *En establecimientos de más de 150 $m^2$ , 40%; y hasta 150$m^2$, 60%. En los espacios de mercadillos, 50% de puestos permitidos.*

---

**Txokoak.** Elkarte gastronomikoak, lonjak eta antzekoak itxita daude.

***Txokos.*** *Sociedades gastronómicas, lonjas y similares permanecen cerrados.*

---

**Ostalaritza.** 400etik gorako intzidentzia-tasa duten udalerrietan, barruko ordutegia 06:30etik 9:30era eta 13:00etatik 16:30era izango da (**). Gainerakoetan, 20:00etan itxiko da. Barneko edukiera % 50. Debekatuta dago barran edo zutik kontsumitzea. Mahai bakoitzean, gehienez 4 pertsona. Nahitaezkoa da maskara erabiltzea, irensteko unean izan ezik.

***Hostelería.*** *En localidades con incidencia superior a 400, el horario en interiores será de 6:30h a 9:30h y de 13:00h a 16:30h (**). En el resto, cierre a las 20:00h. Aforo en interiores del 50%. Prohibido consumo en barra o de pie. En cada mesa, máximo 4 personas. Mascarilla obligatoria salvo en el momento de la ingesta.*

---

**Gaueko aisia.** Gaueko aisialdirako establezimenduak eta lokalak itxita daude.

***Ocio nocturno.*** *Cierre de los establecimientos y locales de ocio nocturno.*

---

**Joko-lokalak.** 400etik gorako intzidentzia-tasa duten udalerrietan, barnealdean ostalaritza-zerbitzuak 6:30etik 9:30era eta 13:00etatik 16:30era eman ahal izango dituzte.

***Locales de juego.*** *En localidades con incidencia superior a 400, podrán prestar en su interior servicios de hostelería de 6:30h a 9:30h y de 13:00h a 16:30h.*

---

**Kultua.** Kultu-lekuetan, % 35eko edukiera. Beilatoki eta ehorzketetan: aire zabalean, 30 pertsona gehienez; eta leku itxietan, 6 gehienez.

***Culto.*** *En lugares de culto, aforo del 35%. En velatorios y entierros: al aire libre, máximo 30 personas; y en espacios cerrados, máximo de 6.*

---

**Kirol-instalazioak.** % 50eko edukiera. Aldagelak, % 35. Ikuslerik ez kirol-ekitaldietan. 400etik gorako intzidentzia-tasa duten udalerrietan, aldagelak itxita.

***Instalaciones deportivas.*** *Aforo del 50%. Vestuarios, 35%. Sin público en eventos deportivos. En localidades con tasa superior a 400, vestuarios cerrados.*

---

**Kirola egitea.** 400etik gorako intzidentzia-tasa duten udalerrietan, barruan egiten den kirola –talde profesionalak eta federatuak izan ezik– 4 pertsonako taldeetan. Gainerako herrietan, aire zabalean edo barnealdean, gehienez 6. Eskola-kirola entrenamenduan eta aldagelarik gabe. Maskara nahitaez erabili behar da, lehiaketetan eta kanpoan egiten den jarduera fisiko bizietan izan ezik.

***Práctica deportiva.*** *En localidades con incidencia superior a 400, el deporte en interiores, salvo equipos profesionales y federados, en grupos de 4 personas. En el resto de localidades, al aire libre o en interior, máximo de 6. Deporte escolar en entrenamiento y sin vestuarios. Obligatorio uso de mascarilla, salvo en competición y en momentos excepcionales de actividad física intensa en exteriores.*

---

(*) Osasun Sailaren webgunean (https://www.euskadi.eus), astelehenero –eta jaieguna balitz, hurrengo lanegunean– argitaratuko da ebazpena finkatutako tasak eta parametroak gainditzen dituzten udalerrien zerrendarekin. Lehen ebazpena atzo, larunbata, argitaratu zen, eta 2021eko martxoaren 29ko 00:00etatik aurrera izango du eragina. Aste Santua dela eta, bigarren ebazpena apirilaren 6an argitaratuko da, asteartean, eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

(**) Murrizketa horiek EAEJANren otsailaren 9ko Autoak baldintzatzen ditu.

Informazio gehiago:

- ·16/2021 Dekretua, martxoaren 27koa, Lehendakariarena (*euskadi.eus/dekretua*)
- ·Ohiko galderei erantzunak (*euskadi.eus/ohikogalderak*)
- ·Bizi Berri III Plana (euskadi.eus/biziberriplana)

*(*) En la página web del Departamento de Salud (https://www.euskadi.eus) se divulgará los lunes de cada semana, y si fuese festivo, el siguiente laborable, la resolución con la relación de municipios que superen las tasas y parámetros fijados. La primera resolución se produjo ayer sábado y tendrá efectos a partir de las 00.00h del lunes 29 de marzo de 2021. Dadas las fechas de Semana Santa, la segunda resolución se publicará el martes 6 de abril y surtirá efecto a partir del día siguiente.*

*(**) Estas restricciones se ven condicionadas por el Auto del TSJPV del 9 de febrero.*

*Más información:*

- *·Decreto 16/2021, de 27 de marzo del Lehendakari (euskadi.eus/decreto)*
- *·Respuestas a preguntas frecuentes (euskadi.eus/preguntasfrecuentes)*
- *·Plan Bizi Berri III (euskadi.eus/planbiziberri)*

*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO